

solasaldia k

Daniel Innerarity



IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Solasaldiak [13]

Daniel Innerarity



Elkarrizketa
Miel A. Elustondo

Marrazkiak
Ainara Azpiazu «Axi»

Argazkia
Zaldi Ero

2016

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

Administrazioa Euskaraz **Solasaldiak**

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Argitaldaria: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Diseinua: Concetta Probanza

ISSN: 1576-5563

Lege-gordailua: BI-1141-93

Fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena, S.A., Araba k. – 20800 Zarautz



Daniel Innerarity

DANIEL INNERARITY (Bilbo, 1959) Filosofia Politiko eta Sozialeko katedraduna da, Ikerbasqueko ikertzailea Euskal Herriko Unibertsitatean, eta Gobernantza Demokratikoaren Institutuko zuzendaria. Irakasle gonbidatua izan da Europako nahiz AEBetako hainbat unibertsitatetan; berrikitan, Sorbonako Paris I unibertsitatean, Florentziako Europar Institutuko Robert Schuman Centre for Advanced Studiesen eta London School of Economics and Political Sciencen. Gaur egun, Pariseko Maison des Sciences de l'Hommeko ikasketa asoziatuen zuzendaria da, eta Georgetown Unibertsitateko Davis katedraren titularra.

Filosofian doktore, Alemanian –Alexander von Humboldt Fundazioaren bekadun–, Suitzian eta Italian sakondu zituen ikasketak.

Argitaratu dituen azken liburuetan dira, adibidez, *Ética de la hospitalidad* (Filosofiako Elkarte Alpinoaren saria 2011n, frantsesez argitaraturiko filosofia libururik onenari), *La transformación de la política* (III. Miguel Unamuno saiakera saria, eta 2003ko Espainiako Literatura sari nazionala saiakera modalitatean), *La sociedad invisible* (Espasa saiakera saria 2004an), *El nuevo espacio público*, *El futuro y sus enemigos*, *La humanidad amenazada: gobernar los riesgos globales* (Javier Solanarekin elkarlanean), *La democracia del conocimiento* (Euskadi saiakera saria 2012), *Internet y el futuro de la democracia* eta *Un mundo de todos y de nadie. Piratas, riesgos y redes en el nuevo desorden global*. Daniel Innerarityren libururik gehienok itzuliak dituzte Frantzia, Ingalaterra, Portugal, AEB, Italia eta Kanadan.

Ohiko iritzi emaile eta kolaboratzailea da *El País*, *El Correo* eta *El Diario Vasco* egunkarietan.

Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria jaso zuen 2008an, eta Kulturaren Bianako Printzea saria 2013an.

Eusko Jaurlaritzaren Etika Publikoaren Batzordeko kide izana, aipatu batzordea iaz utzi zuen Geroa Bairen zerrendan hauteskundeetara aurkezteko.

Hain zuzen, hauteskundeetara aurkezteko erabakiaz hasi gara solasean Innerarityrekin. Bide horrek politikaren errailetara eraman gaitu, azkena publikatu duen liburuaren bideetatik barrena: *La política en tiempos de indignación* (Galaxia Gutenberg, 2015).

Daniel Innerarity

«Politika azeleratu egin da, eta hobe dugu gogoeta egin eta egoera berriei zuhurtziaz ekin»

lazko abenduaren 20an egin ziren Espainiako hauteskundeetan, Geroa Baiko hautagai ageri zinen –zerrendako bigarren– **Madriko Kongresurako. Harritu ere egin ginen, politikaren lehen lerroan zu ikusirik. Lehenago, Nafarroako Parlamenturako zerrendan ikusi zintugun, alderdi beraren izenean, baina 50. postuan...**

■ Konparazio batera, inoiz ez naiz politikatik zeharo kanpora egon, ez zeharo barruan ere. Baina beti sentitu naiz konprometiturik Geroa Baik gaur egun Nafarroan ordezkatzeko duenarekin, eta, hortaz, ahal izan dudana guztian laguntzen saiatu naiz. Alabaina, filosofia politika irakastea eta iker-tzea da gehien maite dudana, eta niretzat sakrifizio itzela litzateke erabat politikari emana bizitzea. Baina badakizu, «inoiz ez da jakiten noiz»... Bestalde, ez dut uste nire ideia pertsonalek nire lan intelektuala zuzen betetzea galarazten didatenik. Norberak duen jarrera ez da lan intelektualarekin bateraezina. Besterik da sektarismoa, hori guztiz bateraezina baita lan intelektualarekin... Niri, egia esan, susmo txarra eragin didate beti neutraltasunaren aldarri harrokeriaz egiten dutenek. Aldiz, miresgarri zait norberak sinesten duena gogo onez defenditzea, itsukeriarik gabe. Gaitasuna izan

behar dugu ikusteko norberak bezala pentsatzen ez dutenek ere badutela beren egia; egiaren parte bat, bederen.

Hala Geroa Bai alderdiak nola haren koalizio kideek aldaketa nahi zuten. Zer esan nahi du aldaketak politika arloan?

■ Beti esan izan dudanez, agintari batzuk kentzea eta beste batzuk jartzea, sektarismo bat beste batek ordezkatzeko, ez da aldaketa, horrek ez du merezi. Nafarroaz denaz bezainbatean, gizartea aldaketa eskatzen ari zen, ez ordezkatzeko hutsa. Horrek, jakina, politikaren hariak beste batzuek gidatu behar dituztela esan nahi du, baina hori ez ezik, baita beste modu batera jardun behar dutela ere. Nafarroan inor ez dago sobera, eta are gutxiago aldaketaren Nafarroan. Alternantzia gauzatu da, baina ez luke zertan eskusiorik gertatu behar. Aldaketaren indarrak ez dira honaino heldu orain arte baztertzeko ohitura zutenak kanporatzeko, guztion Nafarroa egiteko besterik. Errotiko aldaketarik ez litzateke izango gobernatzeko modu berri baterantz abiatuko ez bagina, eta horrek, hasteko, guk ez bezala pentsatzen dutenak egiantan errespetatzea esan nahi du. Zer garen eta nola

pentsatzen dugun adierazteko, ez genuke zertan ukatu beste inor, edo bestek pentsatzen duena.


Posible da aldaketa politikoa?

Gizartea ez da aldatzen sistema politikoaren baitako diren bateko eta besteko eragileen arteko akordioa lortu ezik, eta, are, gizarteak berak aldakuntzan bertan parte hartzen ez badu. Gizarte bat zenbat eta polarizatuago egon, orduan eta nekeago du eraldatzea. Demokrazia da, akordio erregimena baino areago, erabateko desadostasun egoeran elkarrekin bizitzeko egina dagoen sistema bat. Dena den, gure gizarte ituna definitzen duten aferetan edota zirkunstantzia bereziki larriak tarteko direnean, akordio zabalak garrantzi handikoak dira, eta, zalantza bihirik gabe, gure ahaleginik handienak egitea merezi du. Nahiz eta desadostasunari eustea konpromiso txar baten aurrean amore ematea baino hobe izan, nahiz eta konpromisoak iruditu printzipiorik ez dutenen arteko negoziazioaren ondorio –eta batzuetan hala izan, egiaz–, errealitatea modu egoskorrean nagusituko da: desadostasunak adostasunak baino kontserbadoreagoak dira; arestian esan dudanez, zenbat eta polarizatuago egon gizartea, orduan eta nekeago du eraldatzea.

Nafarroan, aurreko Administrazioak hainbat erakunde publiko eta pribaturekin hartutako konpromisoek aldaketa zailtzen dutela zabaldu da. Zein duzu iritzia?

Egia da aurrekontuei dagokienean maniobratzeko aukera handirik ez dagoela, baina hainbat erabaki politikok ez du dirurik balio, eta, aldi berean, erabakiok aldaketarako bide dira. Alegia, aldaketa ez da, besterik gabe, politika publikoak aldatzea; are gehiago da lehentasunak beste modu batera markatzea, eta gobernatzeko estiloa bera ere beste modu batera pentsatzea.

«Aldaketa da lehentasunak beste modu batera markatzea, eta gobernatzeko estiloa bera ere beste modu batera pentsatzea»



Axpī

Akordioa

«Ados jartzeko ezintasunak hamaika ondorio ditu gerora –blokeoak eta betoak, kasu–, baina, oroz gain, ados ez jartzea politika egiteko oso modu axala da. Politikariak izan lezakeen jakituririk handiena –dela problemak konpontzeko jakituria, dela itxuraz etsai amorratuak direnak modu arrazoizko batean adiskidetzeko abilezia– sortzen diren arazoak eta desakordioak birformulatzeko gaitasunaren araberakoa da, birformulatzek berradiskidetzea posible egin dezan. Politika gai izan behar da ordezkatzeko sintesi bihurtzeko, ez dadin izan, besterik gabe, ordezkatuaren interes finkoen arteko borroka, eta, bai, aldiz, zerbait egiazki komuna eraikitzeko bidea. Desakordioaren sorkuntza topiko hutsa da, zenbait oposizio-fikzio guztiz monotonoak dira, originaltasunik batere gabekoak. Esaten denaren kontrara, norberaren jarrerak konfrontazio automatiko bidez definitzea, eta haiei inolako kontzesiorik gabe eustea, ez da irudimen handiko ariketa. Topiko eta estereotipo mordoa biltzen da oposizioaren negatibismoaren eta gobernuari laguntzen diotenen *hooliganismoaren* artean. Antagonismoak ere bere pose eta bere estandarizazioa ditu. Esperientzia historiko askok, aldiz, kontrakoa erakusten dute: alderdi politikoek beren onena ematen dutela ados jarri behar direnean, elkar ulertzeko beharrak eraginda akordioa lortzen dutenean. Kultura politikoaren emaitzarik onenek akordioa eta konpromisoa izan dituzte jatorri. Haatik, inposizioak eta bazterreko erradikalismoak ez dute deus interesgarririk eskaini ohi»

Ez dakit sistema politikoa ez ote dagoen pentsatua halako modu batean non politikariak aldatzea posible den, baina politika bera aldatzea kasik ezinezko...

Pertsonak aldatzea ez da nahikoa, ez du balio, baldin eta zeinahi sistema gidatzen duten prozedurak, arauak eta protokoloak aldatzen ez badira. Gehiago ere esango nuke: kultura politiko osoa aldatu beharko litzateke, eta, horretarako, guztion laguntza behar da; baita hiritarrena ere, jakina. Nire ustez, espazio publikoaren konfigurazioan inplikatuago sentitu beharko litzateke hiritarra. Arazo politikoak tarteko direnean, pertsona batzuk kendu eta beste batzuk jarri nahi dituen planteamenduak ez du arazoaren giltzara jotzen. Politikak, gaur egun, pertsona erreleboa baino gehiago, mentalitate aldaketa eskatzen du; esan nahi baita, gure gizartearen errealitate berriari egokiago lotuko zaizkion bestelako prozedura instituzionalak. Pertsonen joan-etorriak ez dakarkio sistema politikoari berritasunik, betiko jarreari eusten baldin bazaie, behinik behin; hautatu berriak betiko errutina zaharren morroi egiten dira azkenean, ohitura zaharrek intentzio berriek baino indar handiago dutelako.

Arestian aipatu ditugun iazko abenduko hauteskondeez gero, Espainiko estatuan ez da egiazko gobernurik izan bi hilabete baino gehiagoan. «Gobernurik gabe ere berdin bizi gara... Denak berdinak dira...» entzun dugu esaten behin eta askotan. Nola ikusi duzu espainiar estatuko gobernuaren osatzeko ezintasuna?

Nire ustez, gauzak ez dira konplikatu aktoreak asko zirelako edo hitzarmen aukerak hamaika zirelako, baizik eta jokoan ziren hiru planoen arteko nahaste-borraste eta interferentziagatik: premiazko erreformak, gobernu bat osatzeko beharra eta alderdien baitako lidergoa. Hiru ele-

mentuok elkar baldintzatzen dute, eta are, elkar kutsatzen dute; baina bata bestetik bereizi beharra dago, datozkigun hilabeteetan akats larriak egin ez dezagun. Erreformak, gobernagarritasuna eta lidergoa, hirurak ere beren logika berezia eta beren eskakizun propioak dituzten aferak dira; eta larria litzateke ez ezagutzea, esan nahi baita, nola heldu epe luzeko arazoei epe motzaren urgentzia eta zuhurkeria baliatuz.

Bateko eta besteko bilerak egiten ziren bitartean, PPren baitako ustelkeria kasuak ere bata bestearen ondotik zabaldu dituzte hedabideek. Filtrazio interesatuak dira hauteskunde garaian nahiz hauteskunde ostean? Galdera egiten dizut, zure liburu *La política en tiempos de indignación*en ekonomia-indarrek eta hedabideek duten botere handia azpimarratzen duzulako.

Ez dakit, bada... Ez dut uste Espainian ekonomia-indarrek –ez judizialek, ez hedabideek ere– PPren interes politikoak kaltetzeko gogo edo asmo berezirik dutenik, guztiz alderantziz baizik. PP da bere buruaren kontrario nagusia, eta ez barruan azaldu zaizkion ustelkeria kasuengatik, ezpada kasuoi aurre egiteko gai izan ez delako.

Ustelkeria da gaur egun politikaren egiazko gaitza, edo ustelkeriak ez digu uzten ikusten politikaren benetako arazoa?

Politikaren egiazko gaitza ez da ustelkeria –arazo galanta izanagatik ere–, baina bai politika txarra, politikaren ahulezia, politika muntarik gabeko kontua bihurtzeko arriskua, eta, ondorioz, gauzak egiatan beste maila batzuetan erabakitzea. Hori da egiazko arazoa. Ustelkeria onartezina da, jakina, eta gainera baditu bi adar, askotan aintzakotzat hartzen ez ditugunak eta ondorio politiko larriak dakartzakigutenak: alegia, ez dugula begiratzen begiratu behar dugun tokira eta ondorio okerrak ateratzen

ditugula, gure klase politiko beti mailatua are gehiago hondatuz. Lehenik, arreta handiagoa ematen diogu xehehasun morbosoari, horrek dakarren porrot politikoari baino; hots, anekdota eskandalagarriari erabaki politiko okerrari baino. Bigarren, inpresio negatiboa ateratzen dugu ustelkeria kasua deskubritu dutelako, baina ez gara jabetzen ustelkeria deskubritzeko gauza den sistema politiko, judizial eta politikoa dugula. Ez gara jabetzen, baina ustelkeriarik txarrena ikusten ez dena da; ustelkeria ez bistaratzea litzateke okerre.

Politika egiten ikasten den ez dakit...

Sistema politiko osoa ez da gizarteak bere burua ikasteko prozedura bat besterik. Parlamentu batean gauzatzen den dialogoa ez da, bakarrik, nork bere iritziak eta erabakiak besteri komunikatzeko foroa, baita iritzi-erabakiok aldatzeko toki ere. Eta, ongi begiraturaz gero, denboraren joanean gauzatu den ikasketa kolektiboa erakundeetan, legerian, prozeduretan edo administrazioan jalki da; oker asko eginez, noski, baina baita aurrerapen esanahi handikoak eginez ere. Nolanahi ere den, politikak gaur egun duen problemarik latzenetako bat da haren defizit estrategikoa: epe motzeko hodeiertzeko taktika hutsa izatea. Defizit horren ondorio dira egitasmoen ikuspegi murrizta, sintomak artatzea baina ez gaitzaren kontra borrokatzea, momentuan momentuko hautesleekiko morrontzan jardutea etorkizuneko belaunaldien kaltetan, hala ordezkariak nola ordezkatuak arazo korapiloei soluzioa emateko duten ezintasuna, sinplifikazio teknokratiko nahiz populisten lilura eutsiezina, eta abar. Demokrasiak etorkizuneko krisien kudeaketa estrategikoa behar du. Badakigu, jakin, krisiak izango direla, eta ez gutxi: aldaketa klimatikoa, finantza-kapitalismoa, migrazioak, energia hornidura, biztanleriaren zahartzea, gerrak eta gatazkak, pandemiak, pentsioei eustea... Badakigu

krisiok izango direla, noiz lehertuko diren jakitea da geratzen zaigun bakarra, nola haragituko diren, eta zein bitarteko diren haiei aurre egiteko egokienak. Jarduteko modu estrategikoago batek joerak identifikatzen eta soluzioak aurreikusten lagunduko liguke, esan nahi baita, beranduegi izan baino lehen korapilo horiek askatzeari ekiten. Politikak gaitasun estrategikoa berreskuratuz baino ez du lortuko konponketen mundutik konfigurazioenera igarotzea.

**«Inpresio negatiboa
ateratzen dugu
ustelkeria kasua
deskubritu dutelako,
baina ez gara jabetzen
ustelkeria deskubritzeko
gauza den sistema
politiko, judizial eta
politikoa dugula»**





Axpi

«Gobernua osatzeko zailtasunek ezin hobeto erakusten digute zein erraz den egoera baten kontrako protesta jotzea eta zein zail, aldiz, egoera hura birbideratu eta aldatzea»

Sumindura garaia da oraindik ere? Izan ere, horixe ageri du zure azken liburuaren tituluak. Hala ere, M-15 mugimendua alderdi politiko da, eta sumindura hura ere nolabait kanalizaturik dago gaur egun...

Historialariek azken urteotan politikan izan diren aldakuntzak azter ditzatenean hiru garai nagusi bereiziko dituzte, ziurrenera: 2008 aurrekoa, politikarekiko loturarik eza gailentzen zen garaia; sumindura aroa, ekonomia-krisiarekin hasi eta M-15aren garaian goia jo zuena; eta, azkenik, gaur egungoa, non helburua baita hiritar indar horrek gure demokrazian aldakuntza eraginkorrak gauzatzea. Gaur egungoa aurrekoek ez bezalako logika duen garaia da, pluralagoa, propositiboagoa, zailagoa. Ciudadanosek, esaterako, suminduraren gogo berritzaileekin bat egiten du hein handi batean, eta erakusten du ezker-eskuin ardatzak ez direla desagertuko. Gobernua osatzeko zailtasunek, bestalde –eta are gehiago, premiazko diren erreforma politiko eta konstituzionalak gauzatzeko nekeek–, ezin hobeto erakusten digute zein erraz den egoera baten kontrako protesta jotzea eta zein zail, aldiz, egoera hura birbideratu eta aldatzea.

Nola ulertu behar dugu M-15 mugimenduak espainiar estatuan baino askoz ere oihartzun txikiagoa izatea EAEn –baina handiagoa Nafarroan–, eta, kontrara, Ahal Duguk hauteskunde emaitza borobilak izatea EAEn eta Nafarroan?

Nazio-identitate sentimendu handiko erkidegoetan, nola Euskadin hala Katalunian, bestelako eragileak dira jokoan, eta sumindurak bestelako itxura bat hartzen du. EAEn, EAJren zentraltasunak lurrunkortasuna apaldu du, eta hautesleen joan-etorria errazago aurreikusten laguntzen du, nahiz eta joan-etorri hori betiere hor den.

Zer etorkizun du Podemosek?

Tira, galdera horri erantzutea politikan elementu berriek zer egiteko izango duten esatea litzateke. Lehenengo, egia bat esanez hasiko gara: «berri» edo «zahar» kalifikatzailea da, gaur-gaurkoz, argudio politikorik funtsezkoena. Baina nahikoa da oroimen historiko minimo bat izatea zera gogoratzeko; alegia, gurea bezalako gizarte abiadura azkarreko batean modernoarena egitea arin igarotzen dela –gero baino gero arinago–, laster zahartzen dela, eta, alderantziz, zaharra omen zenak iraun egiten duela, edo berriz azaltzen dela. Horrekin batera, ordea, behin eta askotan ikusi dugu berritzaileek akats zaharrak egiten dituztela –alditan, baita seta eta tema handiagorekin ere!–, horrelakorik egitetik libre zeudelakoan. Oraindik oraingo historia politikoa etorkizunean noizbait gainbegira dezanak, eta diren eta ez diren berritzaile, rupturista, abangoardista eta moderno guztien zerrenda azter dezanak, itzulinguru handirik gabe aitortuko du zerrenda horretakoek, ekarpen baliagarriak egitearekin batera, makina bat miseria zahar ere zaharberritu izan dituztela. Berritzaile aurkezten den guztia, berri izatearen balioa ematen zaion guztia, zahartzeko bidean da; ez dago zaharkitzen ez den berritasunik.

Azken bagoiaren paradoxa


«Bada paradoxa bat politikaren kontrako kritikaren atzean. “Azken bagoiaren paradoxa” izenda genezakeen. Txiste hura dut gogoan, trenbideetako agintarien ingurukoa. Nonbait, konturatu dira istripuetan gehienek bereziki azken bagoiari eragiten diotela, eta, asko pentsatu ondoren, tren guztietan azken bagoia kentzea erabaki dute. Ongi da, eman dezagun politika ez dabilela, ez duela funtzionatzen. Nola ezabatzen da klase politiko osoa? Nork ordezkaturiko luke? Nork aginduko luke politikoki formateatu gabeko gizarte espazioan? Nori egingo lioke mesede horrelako mundu batek?»

(La política en tiempos de indignación liburutik)

Mundua era horretara ordenatzeak, alegia, gauza batzuk zaharkinen kutxara sartuz eta beste batzuk berrien erakuslehoan jarriz, arrisku latza du; hau da, ondoko garaian historiak arrazoa kentzea. Horrek ez du esan nahi gauzak nola eboluzio-natuko duten esaterik edo hipotesiak egiterik ez dagoenik. Baina zuhur jardutera behartzen gaitu, ezer betiko lurperatu baino lehen –ahul ikusten dugulako– edo ezer gauza handitzat iragarri aurretik, baliteke-eta besterik gabe aitaren batean igarotzea edo aldi bateko episodioa baino ez izatea. Gertakari sozial eta politikoak aurrean ditugula, nork esan hileta den, edo bataioa? Zer da? Zikloa, joera, birjartzea, edo bira? Jaioko dira berriak, etorkizunean perspektiba hobea izango dutenak eta aurreko aldi historiko batean zer zen berri eta zer zahar erabakiko dutenak.

Sumindura bera politika egiteko modua da? Balia-garri izan ala ez, ez dela nahikoa irakurri dizugu...

Sumindura sentimenduak beti ditu garai eta funtzio jakinak espazio publikoan, baina ardura eta konpromisoa eskatzen dituzten jarrerak baino kalitate zibiko txikiagokoa da. Zirikatzaile xamar esanez, batzuetan norberaren premia ase beharretik sortzen da sumindura hori, norbera ez beste errudun bat aurkitu behar izatetik. Horrela, gogoetari itzuri egiten diogu, eta guk geuk zer egin dugun gaizki edo arlo publikoa hobetzen zertan lagundu genezakeen ez dugu pentsatzen ibili beharrik. Eta arao eta birao horiek atseginez aditzen dituen sumindu jendea ez balitz soluzioa, arazoaren parte baizik? Jendeari sumin dadin eskatzea haiei arrazoi ematea da, orain arte bezala jardun dezaten esatea, partez konformismo hutsean eta



ZAST!

partez sumindura antzuan bizitzea. Iraultzailea litzateke, aldiz, populismoarekin behin betiko haustea, berehalakotasun eta koipekeriarekin etetea, gure atzerakada okerren jatorria horietatik baitaude. Sumindura aldarriek problema bihurriek azalpen axalak emanez irauten dute. Hala ere, sumindurak haserre hori sorrarazi duten gertaera onartezinak aldatzeko arriskurik eta eraginkortasunik gabeko purrustada izateari uzten ahal dio, haserrealdiarri arrazoizko azterketa gehitzen dionean, haserre zergatik gertatzen den gertatzen den une jakinean aztertzen abiatzen denean, errudunak izendatu ez ezik arazoak identifikatzen dituenen, edota ekin-tza hodeiertzen bat proposatzen duenean.

«Eta arao eta birao horiek atseginez aditzen dituen sumindu jendea ez balitz soluzioa, arazoaren parte baizik?»

Menturaz, gehiegi espero dugu politikatik, lar espero demokraziatik, bizitza kanpotik konpon diezaguten zain?

Demokrazian gauza disfunczionala da hiritarrok politikatik bai gehiegi bai gutxiegi espero izatea. Ez dugu lortu hiru gauza orekatzea: politikariek agintzen dutena, sistema politikoak eman lezakeena eta politikarekiko hiritarren itxaropena; eta, zinez, baitezpadakoa da hirurok artikulatzea politikak ondo funtziona dezan. Demokrazia beti da etsipengarria, baina etsipen maila hori onargarria izan liteke gure itxaropenak behar bezala konfiguratu baldin baditugu. Oreka puntu hori lortu ez izanak erakusten du nola ezarri den borroka-tokia gure demokrazietan. Paisaia politikoak polarizatu egin da ziniko teknokraten eta ameslari populistaren tropelen artean; lehenengoek, erabaki poli-





tikoen konplexutasunaz baliatu eta legitimazio obligazioak gutxien dituzte, eta, bigarrenok, aldiz, ez ohi dakite baldintzatzaile askoren artean gauzatzen dela politika. Iduri luke batzuek gure itxaropenak albatz gehien mugatzeko gomendioa egiten digutela, eta besteek, berriz, mugarik gabe zabaltzeko esaten digutela. Bi alderdiok sen onez orekatzea da sintesi politikoak, eta hemendik atzera horien inguruan ardaztuko dira gure eztabaidak.

Has eta buru, horretan ari zara zure liburuan...

Nire liburuak politika hobeto entenditzen laguntzea nahiko nuke. Egiatan, uste dut ondo entendituz baino ezin dugula politika merezi duen bezain zorrotz epaitu. Ez dut inor desenkusatu nahi, ez ordezkariak ez ordezkatuak, batzuen eta beste-tzuen obligazioak ondo neurtu besterik, eta adizera eman gure sistema politikoak hobetzeko zer egin dezakegun denok, hala batzuek, nola besteek.

Zer diozu politikariren lintxamenduz? Kontu zaharra da plaza publikora irteten dena arriskupean dagoela.

Nire irakasleetako batek, Xavier Rubert de Ventosek, hain zuzen, inoiz ahantzi ez dudana zera bat esan zidan: «Lintxamendu bat ikusten duzun aldiro, lintxatzen ari dena defenditu behar duzu... nahiz eta zital hutsa izan, lintxamendua bera are zitaleria handiagoa delako». Eta gure politikariek hobetzeko tarte handia dutela uste dudana arren, konbentziturik nago hiritarrok uste duguna baino hobeak direla. Oso gutxi dakigu zein baldintza artean jardun behar duten lanean. Badakit hau esatea ez dela politikoki zuzena, baina politikoen kontrako ohiko kritikak egiteak, haiek tartean ez balira geure buruari egin beharko genizkiokeen kritikatik libratzen gaituzte. Zentzurik ba ote du gure ordezkari politikoen kontra zenbait kritika egitea, eta, aldiz, ordezkatuena inozentzia



aldarrikatzea? Agerikoa da kontraesana. Ezin da izan gure ordezkariak gu bezalakoak izatea eta, aldi berean, haiek elitearen ezaugarriak edukitzea. Ezinezkoa da tamaina horretako elite ezdeusa gauzak nola egin behar diren ondo baino hobeto –omen– dakien gizartearen baitatik irtetea. Horrek garbi erakusten du populismoa ez dela «elite pekoz goratua» besterik, hau da, pentsatzeko modu bat zeinaren arabera herria ez den bere agintarien maila bertsukoa, ezpada maila hobekoa. Politikariek gauza guztiak hain gaizki egiten badituzte, ezin dugu pentsatu gainerakook dena ondo egiten dugula. Ez ote da politikariak baliatzen ditugula geure baitako erru eta frustrazio deabruak kanporatzeko?

«Zentzurik ba ote du gure ordezkari politikoen kontra zenbait kritika egitea, eta, aldiz, ordezkatuaren inozentzia aldarrikatzea?»

Horra galdera egina... Nork erantzun behar dio horri? Edo, bestela, nork egin behar du politika?

Hasteko, gizarte demokratiko batean denek egin behar dute politika. Oreak lortu behar dugu profesionalen artean, sartzen eta irteten direnen artean, adituen eta oinezkoen artean... Politikak gaur egun konplexutasun maila ikaragarria duenez, ezin du funtzionatu berari emana bizi den profesional talderik eta adituen iritzirik gabe. Dena dela, demokraziak peko erreka joko du politika arloan pertsona berriak zirkulatzea galarratzen duen kasta bat osatzen bada. Aldi berean, politika bera bateraezina da gauza guztiak adituen esku uztearekin. Politika da jarduera bat jendearen, adituen, funtzionarioen eta politikako profesionalen arteko oreka artikulatzea eskatzen duena.

Jendea, kasu honetan, herritarrak gara; hiritarrak, nahi baduzu. Zertan da gure parte hartzea? Horretaz ere gero baino gero gehiago hitz egiten da han-hemen...

Nik uste garbi geratu dela elkarrizketa honetan zehar... Sistema politikoak ezin du ondo funtzionatu hiritarren inplikaziorik gabe. Inplikatzeko modu ezberdinak daude, mila eta bat, eta gaiaren arabera izan liteke, edo unean unekoa edo urgentziaren arabera, zuzenekoa, sare sozial edo hedabide bitartez egitekoa... Esate baterako, horixe gertatu da Internet dugunetik: politikariek eta kazetariak kontrolatzen zuten arloa izateari utzi dio politikak, eta, era berean, espazio publiko instituzionalaren eta hiritarren elkarrizketa pribatuen arteko tartea ahuldu egin da. Dena dela –liburuan bertan diot–, parte hartzeak baditu mugak, eta batzuek zabaldu duten topikoa desegiten saiatzen naiz. Topikoaren arabera, politikaren problema da ordezkariak kasurik ez digutela egiten, eta guk zehatz-mehatz jakingo genukeela zer egin halako eta halako egoeran.

Etika publikoa

«Etika publikoa hutsune bat betetzera dator, gure ordezkarien kontzientziako konbikzio pribatuen eta kode penalaren arteko espazioan dagoen tarte, preseski. Tarte hori prozeduraz bete behar da, halako maneran non politikariei zer eska diezaiekegun eta nolako jokabidea izan behar duten jakingo baitugu. Badira jokabide batzuk, delitu ez izan arren ere, zuzenak ez direnak, politikoki onargarri ez. Ordez kari politiko bati beste edozein hiritarri baino gehiago eska lekiok, sektore publikoan erabakiak hartzeko prozedurak sektore pribatuan hartzekoak ez bezalakoak diren ber. Ideia hau erreserba logiko batekin osatu behar da: etika bera ere ez da soluzio politikoa; are gehiago du ikustekoa politikaren mugekin, ez du inola ere hura ordezkaten. Gobernu bat etikoki orbangabea ez da, nahitaez, gobernu ona, baina ezin da gobernu onik izan gutxieneko etiko jakin batzuk errespetatu ezik. Batzorde eta kode etikoak gutxieneko horiek bermatzen saiatzen dira, ez gehiago, eta ez gutxiago. Etika publikoa ez da nahikoa politika ona izan dadin, baina hura gabe, ez da politika onik izango»

Zein eta zein kalte dakarzkigu politikariek behin eta berriz epe motzean jokatzen tematzeak?

Fernandoren egia izan liteke, baina, batik bat, epe luzeko ikuspegia baliatuz konpondu behar diren arazoak bere horretan eta aztertu gabe geratzea. Eragile politikoez beraiek berriro hautatuak izatea errazten duten arazoei besterik heltzen ez badiete,

erreforma sakonak edo akordio zabalak eskatzen dituztenak baztertzeraz jotzen dute. Beste behin, epe mozkeria kontserbadorea da; axaleko asaldura goستن du, egiazko mobilizazio kolektiboa eskatzen duten arazoak zeuden-zeudenean uzten baititu. Horra, adibidez, gure hezkuntza-sistema, ongizate estatuaren iraunkortasuna, aldaketa klimatikoaren kontrako borroka eta beste.

Nola ari da aldatzen politika? Oraindik ere badira ezker eta eskuineko alderdiak? Etorkizunik ba ote dute alderdi politiko klasikoak?

Ezker-eskuin ardatza sasoi onean dago oraindik, eta bere horretan iraungo du, nahiz eta pare bat ñabardura egingo nituzkeen. Lehenik, ardatz horrek ez ditu aurrez aurre jartzen merkatuaren aldekoak, batetik, eta estatuarenak, bestetik. Engoitik, ez da gauza nabarmena, aukera handiko kolore-paleta baizik. Gero baino gero oinarri gutxiago du bai batzuk eta bai besteak etiketatzeko barruan pizten zaigun automatismoa. Bigarrenik, eskuinezker hori antagonismo ardatz bat da, baina beste batzuekin batera bizi beharko duena, zaharra berriaren kontrakoa bezala, esperientzia berritasunaren kontra, edo nazio identifikazio ezberdinen auzia bezala. Alderdi tradizionalak berriekin batera bizi beharko dute, lurrunkortasun handiagoko panoraman, baina baliteke lurrunkortasun hori –alderdi gaur berriei emaitza ikusgarriak ematen dien horixe– hurrengo batean mehatxu bihurtzea. Politika azeleratu egin da, errusiar mendia bihurtu da, eta, honenbestez, hobe dugu denok gogoeta egin, akatsik ez egin, eta egoera berriei zuhurtziaz ekin.

«Niri ez zait politika interesatzen», behin eta askotan aditzen dugun esaldia. Zer diozu?

Hori esateak ez du inor politikatik babestuko, politika bera interesatuko baita hiritar honetaz, horretaz eta hartaz, norbera ez interesatuagatik ere. Norberaren baimen eta inplikazioen gainetik eragingo gaitu beti politikak. Hortaz, aukeratu beharra dago: politikaren eragina jaso eta parte hartu, edo ez parte hartu baina era guztietara ere politikaren eragina jaso.

Emakumeak sarrera egin du politikan. Ez dakit sarrera horretatik gehiago ez ote zenuen espero.

Nik uste denok espero genuela gehiago emakumeak politikan egin duen sarreratik, baina bistakoa da gizonok ez dugula boterea erraz uzten; eta emakumea lan «femeninoetara» baztertzen dugu, edo haiek toleratzen ditugu, baina rol «maskulinoak» hartzen dituzten neurrian. Politika gizonen kontua da oraindik ere, dirudiena baino hein handiagoan, gainera, eta estatistiketan jasotzen diren zenbaki lasaigarri guztiak gorabehera. Asko aurreratu behar dugu oraindik, nahiz eta asko aurreratu den. Gaur egun, 80ko hamarkadako parlamentuetako argazkiak ikustea –jendea jo eta ke eta jo eta su zigarro erretzen ari zela–, gizonen besterik ez beteak ikustea bezain harrigarri zaigu.

«Denok espero genuen gehiago emakumeak politikan egin duen sarreratik, baina bistakoa da gizonok ez dugula boterea erraz uzten»



Egin zaharra ez duzun liburuaren eskaintzan –J.A. Torres Morari– diozunez, «politikaz ez dakigu ia ezer (...) [gizateriak] misteriorik enigmatikoena du politika eta, beharbada, munduko lanbiderik zehatzugabeena ere bai»... Eta, hala ere, 350 orrialde idatzi dituzu politikaren gainean. Ba ote?

Gizarteek sistema politikoaren kargu uzten dute beren arazo korapilotsuenak kudeatzea, hau da, abilezia profesional eztabaida ezinaren bitartez konpontzen ez diren arazo zailak. Gure kexa askok –konparazio batera, politikariak ezgauza direla edo gehiegi eztabaidatzen dutela–, politikariei eman diegun ordezkariak ahazten dute. Politikan, gainerako gizarte esparruetan baino ziurgabetasun eta antagonismo gehiago biltzen dira. Politikariak kritikarekiko sentiberak dira –eginkizun horixe

agindu diegulako, hain zuzen–, eta, batzuetan, ahantzi egiten dugu politikarien bizkar utzi ditugula guk geure gaitasun eztabaida ezinaren bitartez konpondu ezin ditugun arazoak, eta horri zor zaizkiola politikarien ezgaitasun eta desadostasuna. Ez, politikariak ez dira ezgauza –edo ez dira, bakarrik, ezgauza, eta ezta beti ere–; kontua da haien ardurapean utzi ditugun arazoak konponezinak direla gaitasun profesional jakin bat gabe; politikariak beren ezgaitasuna erakusteko arriskuan bizi dira, haiengan ordezkatu dugulako ziurgabetasun handieneko auziak konpontzea. Gure kritika zuzena izan dadin, ez genuke ahantzi behar ezaugarri hori; alegia, politika jardura bereziki zail, polemiko eta ziurtasunik gabekoa egiten duena. ■



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO